

Uztaila 2025

Parte hartzaileak

Akordioa Kutxabankekin

Getxo Enpresak lankidetza-hitzarmena sinatu du Kutxabankekin; horren bidez, merkataritza- nahiz ostalaritza- negozioek eta horiei lotutakoek baldintza bereziak izango dituzte prezioari eta zerbitzuari dagokienez, negozioa kudeatzeko egokiak diren finantza-produktu eta -zerbitzuak eskuratu ahal izateko.

Zure negozioak baldintza berezi horiek eskuratzea nahi baduzu, helbide honen bitartez jarri zaitez harremanetan:

info@getxoempresa.com

+ Info



Izena eman

Elkarteko kideen artean kontsumoa sustatzea

Elkarteko kideen artean kontsumoa sustatze aldera, elkarteko negozioei proposatu nahi diegu deskontuak edo sustapenak eskaini diezazkieten kide diren beste negozio batzuei (titular eta langileei).

Elkartekideen arteko deskontu eta sustapenen sarean parte hartu nahi baduzu, helbide honetara idatzi iezaguzu: info@getxoempresa.com.



Negozioen lehiakortasuna hobetzea


Retail Euskal Eskola Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Saileko proiektua da. Horren bidez, negozio bakoitzaren arabera pertsonalizatutako ikaskuntza-plataforma baliatuz, hobetu nahi da merkataritzako jarduerari lotutako zerbitzuetan diharduten saltoki nahiz negozioen lehiakortasuna. Programa horren berri eman nahi dizugu elkartetik.

+ info

Emakume ekintzaileak babestea

Oraindik gizonak erreferentetzat hartzen dituen enpresa-testuinguruan sortu da Sarenesk, asmo, irizpide eta estilo propioekin ekiten duten emakumeak bultzatzeko programa.

GetxoLanek eta EmakumeEkin elkarteak sortutako ekimenak, besteak beste, hauexek eskainiko ditu: jardunaldi irekiak, sormenezko *networkinga* eta banakako aholkularitza pertsonalizatua. Getxo Enpresan laguntza-programa horri buruz aholkatuko dizugu.



Kontaktua

Beste buletin gehiago

Getxo Enpresa

www.getxoenpresa.com
info@getxoenpresa.com



Arene Kalea, 22, 48991 Getxo, Bizkaia

[Política de Privacidad](#)

